

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 155/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea larrialdi deklarazioa, kontratazio prozeduretan COVID-19ari aurre egiteko neurriak hartzetik eratorritako premiei erantzuteko

Erabaki honen xedea da hartu beharreko neurri premiazkoak hartzea erantzun ahal izateko, kontratazio publikoaren eremuan, coronavirusak eragindako ezohiko egoerei; hartara, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, zeinaren bidez alarma egoera deklaritzen baita COVID-19k eragindako osasun krisis egoera kudeatzeko, ezartzen duen esparru juridikoa osatzen da.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiak eta foru sektore publikoko erakundeek COVID-19ari aurre egiteko hartu beharreko edozein neurri mota hartzeak, zuzenekoa zein zeharkakoa, beharrezko jarduteko premia justifikatuko du, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120 artikulua ezarritakoaren babesean.

Horren ondorioz, COVID-19ari aurre egiteko neurriak hartzetik eratorritako premiei erantzuteko Arabako Foru Aldundiak eta Arabako foru sektore publikoko erakundeek egin beharreko kontratu guztiei larrialdiko izapidea aplikatuko zaie.

Justifikatu egingo da COVID-19a dela-eta pertsonen osasuna babesteko neurriak hartzeak eragindako gastuei aurre egiteko beharrezkoak diren funtsen igorpena.

Bigarrena. Erabaki honek onesten den egunetik eragingo ditu ondorioak, edozein dela ere ALHAOn argitaratzen den eguna.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 17a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE